


*Magnesioan eskalatzten  
—beatz eskalada ederra—*

## JENTILBARATZA; arbasoak gogoratuz

### Ordiziako Dalton

Este «pequeño tesoro» que hemos heredado, custodiado en algún tiempo por su fortaleza, a todos los entusiastas de esta «divina» modalidad, nos servirá y nos ayudará en gran medida a superarnos y a disfrutar de una escalada espectacular, donde la buena calidad de la roca se presta a ello.

*Jentilbaratza está en el barrio de San Martín de Ataun.*



*Katagorrian ere  
beatzak nagusi.*


Eskalada eskola honen sorrera, ustekabeari esker izan da; 1983.go abenduan (hego haize gau inspiratu batean), lagun talde bat, Aitzarte aran aldera gau pasa egitera joan ginen. Itzultzerakoan horma bat ikusi genuen. Hasieran eta goizeko makar-begiradan igo ezina iruditu zitzaigun. Gustora ez gelditu eta berriro itzultzekotan gelditu ginen.

Honela, berriro itzultzerakoan aho-zabalik gelditu ginen, bai fisurak bai tetxuak ezin hobeak azaltzen ziren; beraz eskalada biak irekitzeko egokiagoak.

Gai honetan gehiago murgildu baino lehen, inguru honen historia arkeologikoa azpimarratzea gustatuko litzaiguke; lehenbizi esan dezagun arkeologi mailan oso leku aberatsa dela. Horra hor beste batzuen artean leizezuloak, Limurita, Troskaeta e. a. Inguru hauetan eta bere hasieran Joxe Mikel Barandiaran ibilia da. Bertan goi-paleolitiko, neolitiko eta erromatar aztarnak aurkitu dira. Berauek, gaur egun Donostiako San Telmo museoan aurkitu daitezke.

Bereiztasun bezala aipagarria da, horma honen goialdean agertzen diren gastelu antzeko horma eroriak, «Jentil baratzako hormak» izenez ezagutzen direnak. XI-XII. mendeetan kokatzen dira, ustez Tartaro jaun xebreak eraikiak. Jaun honen jolasak ez ziren berriketakoak izango, presoak hartu eta tontoretetik botatuz.

Aurreko arira itzuliz, aipagarriena arkaitzaren sendotasuna da, non ur tantak egindako zulo-heldu lekuak ugariak diren eta batzuetan extraplomoak izateraino iristen diren. Hots, oinharri oinharrian beatz eskalada.



Ugaritasun honetan, tetxuak eta fisurak ez dira falta. Aipatzekotan: Matxin-salto, Mamarroak, Aizan, e.a.

Bia guztiak, Matxin-salto, Kattagorri, Basajaun ezik, behetik irekiak izan dira. Zailtasunari dagokionez, goi-mailakoa dela esan dezakegu. Leku batzuetan VII. gradura iritsi da, hala nola Magnesio Ez-en lehen sokaldian eta Haizan-en 2.ean. Magnesioaren erabilpenari buruz, gure ustez, ez erabiltzea akonsejatzaren dugu. Arkaitzaren atxekiduna (aderentzia) ona bait da.

Azpimarratu gabe ez dugu utzi nahi bia hauen edertasuna eta gozamina. Zein, zein baino ederragoak.

Graduazioa egiterakoan, atsedendialdiak ez egitea kontutan izan dugu.

Jetsierak, nahiz rappelez (krokis), nahiz oinez (kanaletik) egin daitezke, horma alde batetik bestera zeharkatzen duen leize zulo-tik ere nahi izan ezker. Azken bide honeta-

tik, hormaren eskubi aldera gelditzen den basora ateratzen da.

## Hurbil bideak

Ataun San Martinen kokatua dago. Beasaindik Nafarroaruntz doan bidea hartu behar da. Ataun San Martinera helduz gero, ezker aldera harrobi nazkante eta nabarmen bat dugu. Bertara, Aitzarte aranera dañaman bideak eramaten gaitu. Gure helburua, harrobiarekin atze aldean dago. Kontuan eduki beharreko bi ohar:

—leku hau, altxor txiki-handi berri bat balitz bezala gordetzen saiatu behar gara.


—gure eskalada maila hobetzeko baliogarri bat izan dadin.

Ordiziako «Dalton taldeak» hegaldi dotoreak opa dizkizue eta hurrengorarte Jentil baratzen.

Matxin salto.

## JENTILBARATZA

- |                          |                                  |
|--------------------------|----------------------------------|
| 1 Matxinsalto .....      | ED                               |
| 2 Katagorri .....        | ED                               |
| 3 Mamarroak .....        | ED <sup>-</sup>                  |
| 4 Sumendi .....          | MD                               |
| 5 Txunpletin .....       | ED <sup>-</sup> /ED              |
| 6 Tartaro .....          | ED                               |
| 7 Aizan .....            | MD <sup>+</sup>                  |
| 8 Plastikolaris .....    | ED <sup>-</sup>                  |
| 9 Magnesio ez .....      | ED <sup>+</sup>                  |
| 10 Momo .....            | ED <sup>-</sup> 8                |
| 11 Basajaun .....        | MD <sup>+</sup> /ED <sup>-</sup> |
| 12 Kixmi .....           | MD <sup>+</sup>                  |
| 13 Segapotoa .....       | D <sup>+</sup>                   |
| 14 Karramarroa .....     | D                                |
| 15 Trespas .....         | ED                               |
| 16 Popeyes .....         | ED <sup>+</sup>                  |
| 17 Udos .....            |                                  |
| 18 Destinu Petrata ..... |                                  |



Ordiziko Dalton